

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

2610

EBAZPENA, 2026ko maiatzaren 25ekoa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze zuzendariarena, «Basque Global Industry» programako laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta programa horren 2026rako deialdia onartzen dituen.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia («SPRI») Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Industria, Energia Eraldaketa eta Iraunkortasuna Sailaren mendekoa. Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek sustatzera bideratutako jarduketaz arduratzen da: industria- eta enpresa-jarduera, inbertsioa, garapena, dibertsifikazioa eta industria-lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, Informazio eta Ezagutza Gizartearen garapena, eta enpresa arloko ekintzailatza-jarduera.

Horri dagokionez, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak hainbat ekintza garatzen ditu euskal enpresen nazioartekotzea bultzatzeko. Jarduera horien artean, gure enpresen nazioarteko posizionamendua hobetzeko laguntza-programak aipatu behar dira.

Gobernu Kontseiluak 2025eko irailaren 30ean onartutako Euskadi 2030 Industria Plana hiru ardatz estrategikoren (Industria gehiago, Industria hobea eta Emisio gutxiago) eta zeharkako ardatzaren (Desburokratizazioa) gainean eraikitzen da, eta ardatz horiek eraldaketa industrialaren ikuspegi integrala islatzen dute egungo Europako testuinguruan. Ardatz estrategiko bakoitza bost lehentasun estrategikotan zehazten da, eta horiek proiektu zehatzen bidez hedatuko diren ekintza-ildoak biltzen dituzte. Hamasei lehentasunek Europako industrian abian diren trantsizio handiei erantzuten diete.

Euskadi 2030 Industria Plan honek euskal industriak erabakitasunez aurre egin beharreko erronkak adierazten ditu, Europako lehentasun estrategikoekin bat egiten du eta Euskadiko industria sektore estrategikoak hiru kategoriatan sailkatzen ditu:

1.– Irabazi (Egungo industria-sektore traktoreak).

- Ekarpen handia Euskadiko Balio Erantsi Gordinari (BEG) eta enpleguari.
- Enpleguaren kalitate handia (egonkortasuna, prestakuntza, ordainsaria).
- Esportazio-bolumen eta -espezializazio handia = Ekoizpen + Lehiakortasun Handia.
- Intentsitate teknologiko ertain-handia.
- EBren industria-politikaren finantzaketarako lehentasunekin eta programekin lerrokatua.

2.– Hazi (Etorkizunean trakzio-potentziala izango duten sektoreak).

- Intentsitate teknologiko handia + gaitasun zientifiko-teknologikoak.
- Lehentasunezko sektore gisa aitortzea Batzordearen eta Europako programen lehentasunetan.
- Hazkunde-potentzial handia merkatu globaletan datozen hamarkadetan.
- Etorkizunera begira potentziala duen Irabaziren azpisektorea.

3.— Jauzi (Haien merkatuan lidergotzarako potentziala duten beste sektore batzuetako enpresak).

Merkatuan duten posizionamenduan jauzi kualitatiboa emateko Proiektu Eraldatzaileak planteatzen dituzten beste edozein sektoretako enpresak, betiere dimentsio hauetakoren batean jarduten badute: teknologia, berrikuntza, nazioarteko proiektzioa eta jasangarritasuna. Halako Proiektu Eraldatzaileak edozein sektoretan sor daitezke. Haien bereizgarria ez da abiapuntua, eraldaketa estrukturalerako potentziala baizik; inpaktu argi eta handia baitute produktuen eta/edo zerbitzuen bereizgarritasunean, lehiakortasuna eta merkatu-kuota irabazteko. Ezkutuko txapeldun berriak ekarriko dituzten ETEen proiektu arrakastatsuak egongo dira. Era berean, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak (ZTBP 2030) Euskadik ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten duen apustu estrategikoa islatzen du. Halaber, euskal gizarteak etorkizun hobe baten alde duen konpromisoa islatzen eta irudikatzen du, eta bere apustu nagusia zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatzea da, Euskadi digital, berde eta inklusiborako trantsizioa bizkortzeko.

Industria Planean eta ZTBP 2030ean aurreikusitakoaren ildotik, uste da etorkizun hurbilean EAEko lanpostu guztien ehuneko adierazgarri batek goi-mailako kualifikazioak eskatuko dituela, eta gaitasunen zati handi bat hezkuntza ez-formalaren bidez eskuratuko dela, arreta berezia jarritz nazioarteko mugikortasunari, benetako lan-inguruneetako ikaskuntza praktikoari eta gazteen parte-hartze aktiboari dagokienez.

Horregatik, ekonomia ireki baten esparruan planteatzen diren etorkizuneko erronkei irtenbideak aurkitzeko, eta euskal gazteen gaitasunak eta ezagutza, prestakuntza eta mugikortasuna gartzeko, lan-merkatuan sartzeko gaituz, beka-programa bat abiarazi zen lehen aldiz 2012an, EAEko gazteen nazioz haraindiko mugikortasuna sustatze aldera, aldezturik aurretik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan baten bidez atzerriko enpresa eta erakundeetan haien profil akademiko eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak egiteko. Programa horrek, aldaketa egokiek, indarrean jarraitzen du gazteen eta euskal enpresen prestakuntza-beharrei erantzuteko.

Basque Global Industry programa Global Training programaren birfundazio bat da, eta haren oinarriak urtero argitaratu dira 2012 eta 2025 urteen artean (2020an izan ezik, pandemiaren ondorioz).

2026ko deialdian doikuntzak egin ziren programa Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasun Sailaren eskumenekin lerrokatzeko. Ildo horretan, Basque Global Industry programa bat da, unibertsitateko titulazioa eta Lanbide Heziketako goi-mailako gradua duten euskal gazteei atzerrian profesionalki prestatzeko aukera ematen diena, beren espezialitate akademikora egokitutako enpresetan edo erakundeetan praktika ordainduak eginez. Proiektu honen bidez, EAEko gazteen nazioz gaindiko mugikortasuna sustatzen da, haien prestakuntza osatzeko eta hazkunde pertsonal eta profesionalerako aukera emateko.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko urtarrilaren 24ko Aginduaren bidez, SPRIren 2025-2028 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan jasotzen da programa hau, eta erakundearen gardentasun-atarian dago argitaratuta. Planaren hurrengo helburua lortzen laguntzen du: «EAEko gazteen nazioz gaindiko mugikortasuna sustatzea, unibertsitate-titulua eta goi-mailako lanbide-heziketa duten gazteen profil akademiko eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak atzerrian egiteko».

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak («DAEL») 7.2.a) artikuluan eskatzen du lege horretan aipatzen diren dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena, besteak beste, publikotasun-printzipioaren arabera egitea. Era berean, DAELren 8.3 artikulua dirulaguntza-mota edo -programa bakoitzaren oinarri arautzaileak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko betebeharra ezartzen du.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— «Basque Global Industry» 2026 Laguntza Programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Horren edukia eranskin gisa gehitu da ebazpen honetan.

Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Zuzendaritzaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahalko da zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2026ko maiatzaren 25a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendaria,
NAGORE BONILLA GABARAIN.

ERANSKINA

BASQUE GLOBAL INDUSTRY 2026 LAGUNTZA PROGRAMAREN OINARRI
ARAUTZAILEAK

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea «Basque Global Industry» 2026 programako bekak kudeatzeko aukeratu dituzten erakundeei, banakakoei zein lankidetzakoei. Programa horren helburua da unibertsitate-titulazioa eta goi-mailako lanbide-heziketa duten euskal gazteei prestakuntza praktikoa ematea atzerriko enpresa eta erakundeetan («Erakunde Onuradunak»).

2. artikulua.– Deitutako bekak.

Gehienez 350 «Basque Global Industry» beka izango dira, eta erakunde onuradun bakoitzak, oinarri hauetan aurreikusitako baldintzen arabera, gutxienez 50 eta gehienez 80 bekaren kudeaketa eskaini beharko du.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Programa honen helburura bideratutako 2026ko baliabide ekonomikoak 4.960.000 eurokoak dira, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrekontuetan horretarako ezarri diren aurrekontu-zuzkiduretatik etorriko dira. SPRIren aurrekontuak 2026rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartuta daude.

Deialdi honen kontura emango diren beken zenbateko osoak ezingo du gainditu artikuluko honetan esleitutako zenbatekoa.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak eta izaera hori lortzeko eskakizunak.

1.– Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke I. eranskinean deskribatutako «Basque Global Industry» beketarako deialdia egiten duten erakunde publiko edo pribatuak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Merkataritza-sozietate ez izatea eta dagokion erregistroan eratuta eta inskribatuta egotea, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez bi urte lehenago.

b) Gutxienez bi urteko esperientzia izatea unibertsitate-prestakuntzako edo goi-mailako lanbide-heziketako proiektuak eta jarduerak egiten, eta/edo, aldi berean, gazteak lan-munduan sartzea errazteko behar diren gaitasunetan trebatzen esperientzia izatea, nazioarteko mugikortasun-programen bidez.

c) Jarduera-eremu gisa EAE osoa duten erakundeak izatea.

d) Nazioarteko sareren bateko kide izatea edo antzeko ezaugarriak dituzten atzerriko beste erakunde batzuekin lankidetzak-hitzarmenak edo -akordioak sinatu izana, horien bidez bermatuta gera dadin euskal gazteek praktikak egin behar dituzten atzerriko enpresa edo erakundeen hornidura.

2.– Ezingo dituzte deialdi honetan aurkeztu diren dirulaguntzak jaso:

i) DEALen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenek.

Zehazki, ulertuko da eskatzaileek zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzako betebeharrak eta dirulaguntzen itzulketen betebeharrak betetzen dituztela Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritako kasuetan. Hala, ulertuko da dirulaguntzen itzulketen

betebeharren ordainketan eguneratuta daudela zorrak zatikatuta edo atzeratuta eta bermatuta daudenean, edo itzultzeko dagokion ebazpenaren inpugnazioa bertan behera uztea adostu denean.

ii) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpoko delat edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak errekupeatzeko agindu baten mende daudenean.

iii) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzen dutenek, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun errealeta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

iv) Armamentuaren ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan aritzen direnek, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoaren arabera.

3.– Laguntza-eskaera aurkezten den unetik hasi eta emandako dirulaguntza likidatu arte bete beharko dira aurreko apartatuetan laguntzen onuradun izateko aipatutako eskakizunak.

5. artikulua.– Jarduerak, diruz lagun daitezkeen gastuak eta laguntzaren gehieneko zenbatekoak.

1.– Oinarri hauen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen jardueratzat hartuko dira Basque Global Industry beka-programaren kudeaketarekin zerikusia dutenak; hau da, beketarako izangaien deialdi- eta hautaketa-prozesuak egitea, praktikak gauzatzeko enpresei eta erakundeei eska dakizkiekeen baldintzak identifikatzea eta egiaztatzea, helmugara irteteko prestakuntza, zuzkiduren ordainketa, aseguruaren kudeaketa eta Basque Global Industry bekadunen arreta eta jarraipena.

Erakunde onuradunek eskura dituzten ekintza guztiak egin beharko dituzte Basque Global Industry beka behar bezala garatzen direla bermatzeko, eta erantzule izango dira oinarri hauetan ezarritako aurreikuspenak betetzen direla egiaztatzeko, eranskinak barne.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek izango dira:

a) Prestakuntza-ikastaroek eragindako gastuak. Ikastaro horiek 40 eta 60 ordu arteko iraupena izango dute, eta honako gai hauei buruzkoak izango dira:

1.– Euskadiko Ekonomia Sarearen bilakaera
80ko hamarkadaren hasierako egoera
Industria-birmoldaketa
Espezializazio Adimenduneko Estrategia

2.– Euskal ekosistema
Eusko Jauriaritza
SPRI
Basque Trade & Investment
Aldundiak
Merkataritza-ganberak
Teknologia-parkeak
Basque Research and Technology Alliance (BRTA)
Klusterak eta sektore-elkarteak
Enpresa-elkarteak

3.– Egungo estrategia
2023 Euskadiko Industria Plana
2030 Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana
4.– Industriari eta nazioartekotzeari laguntzeko euskal laguntza eta tresna publikoak
SPRIren laguntzak eta laguntza-tresnak
Basque Trade & Investment-en laguntzak eta laguntza-tresnak
5.– Nazioarteko marketina
Merkatuen Ikerketa
Marketing Mix
6.– Enpresa Diplomazia eta Protokoloa, Komunikazio Estiloa eta Teknikak
Enpresa Diplomazia eta Protokoloa
Komunikazio Estiloa eta Teknikak
7.– Kulturarteko negoziazioa
Kulturarteko komunikazioa
Kulturarteko gatazkak

Prestakuntza-gastu horiek finantzatzeko laguntzak 500 eurokoak izango dira bekadun bakoitzeko.

b) Beka bakoitzaren zuzkidura estaltzetik eratorritako gastuak. Gastu horiek hilean 1.895 euro izango dira bekadun bakoitzeko, gehienez 6 hilabetez. Partida honen kargura:

i) Bekadunek 1.785 euroko zuzkidura gordina jasoko dute. Zuzkidura gordin horretatik eta dagozkion ordainketetatik, hala badagokio, dagozkion atxikipenak kenduko dira, PFEZari eta Gizarte Segurantzari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

ii) Gainerako 110 euroekin, erakunde onuradunek enpresaren konturako Gizarte Segurantzako kotizazioen kostuei aurre egingo diete.

c) Erakunde onuradunak, I. eranskinean ezarritakoaren arabera, aseguru-polizetatik eratorritako gastuak sinatu beharko ditu, bekadun bakoitzak gaixotasun-, erantzukizun zibil- eta istripu-arriskuak estaltzen dituen aseguru bat izan dezan, eta aseguru hori bidaiako laguntza-aseguru horren osagarri izango litzateke. Gastu horiek finantzatzeko laguntzak 600 eurokoak izango dira bekadun bakoitzeko.

d) Erakunde onuradunen «Basque Global Industry» beka-programa abian jartzeak, kudeatzeak, administratzeak, komunikatzeak eta argitaratzeak eragindako gastuak. Finantzaketarako laguntzak 1.200 eurokoak izango dira emandako beka bakoitzeko.

Bisatua herrialde jakin batean lortzeak bekadunak jaso beharreko zuzkidura gordinaren % 3tik gorako kostua badu, erakunde onuradunek partida horren gain hartu eta egotzi ahal izango dituzte gastu horiek.

Bekadunen batek uko egiten badio bekari oinarri hauetako 14. artikuluko b) letran ezarritako justifikazioa egin ondoren, baina bekaduna helmugara joan aurretik edo helmugara joan ezin denean,

bekaduna praktikak egiten ari den herrialdeko ezinbesteko arrazoiak direla medio eta/edo mugak itxita daudelako (beraz, beka bertan behera geratuko da), erakunde onuradunek beka bakoitzaren kudeaketari dagokion zenbatekoaren % 50 soilik jasotzeko eskubidea izango dute.

e) Horrez gain, 3. artikuluan deskribatutako aurrekontuan kontingentzietarako 500 euroko partida bat jaso da bekadun bakoitzeko.

Partida hori bekadunen segurtasunari eragiten dioten ezinbesteko arrazoiengatik baino ez da erabiliko (osasun-gorabeherak, gerra-gatazkak, munduko krisiak, etab.), eta ustekabeko gastuak egiteko beharra sortuko da, aparteko arreta medikoa eskaintzeko, helmugako herrialdeetan bidaia edo gastu gehigarriak egiteko edo, hala badagokio, bekadunak helmugan dauden tokitik beren jaioterrira aberriratzeko.

Partida hori gastuak egozteko, Nazioartekotzeko zuzendariaren alde aurreko baimena beharko da, eta baimendutako gastu bakoitza agiri bidez justifikatu beharko da. Kontzeptu horrengatik egindako gastuen likidazioa oinarri hauen 14. artikuluan deskribatutako hirugarren eta azken ordainketan egingo da. Partida hori erabiltzea beharrezkoa ez den kasuetan, erakunde onuradunek ez dute inolako zenbatekorik jasoko partida horrengatik.

Era berean, DEALen 31.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradun batek azpikontratatu egiten duela ulertuko da hirugarren batekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuen kontratazioa. Hori horrela, azpikontratazioa edo hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da a), c), d) puntuetan, baita kontingentziei dagozkienak ere, eta diruz lagundutako jardueren azpikontratatziorako edo hirugarren kontrataziorako aplikagarri izango dira aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

Horrela, DEALen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikirako ezarritako kopuruak, eta betiere hirugarrengoen kontratazioaren bat baldin badago, onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, bere ezaugarriak bereziak izateagatik, merkatuan ez badago lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko behar beste erakunde, edo gastua dirulaguntza eman baino lehen egin bada. Dirulaguntzaren justifikazioan edo eskaeran aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko, efizientziaren eta ekonomiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta abantailarik handienak dituen proposamen ekonomikoa aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

6. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Oinarri hauetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde edo organismo batzuek helburu bererako emandako beste edozein laguntzarekin.

2.– Nolanahi ere, aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, oinarri hauen babesean emandako laguntzaren zenbatekoak ezin izango du, ez bakarka, ez administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezta diruz lagundutako jarduera berberetarako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderekin batera ere, laguntzaren xede den programa garatzearen guztizko kostua edo laguntza eskatu zeneko zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, oinarri hauen arabera emandako laguntza soberakinari dagokion kopuruan murriztuko da.

7. artikulua.– Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea.

1.– Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2026ko ekainaren 26an amaituko da.

2.– Oinarri hauetatik eratorritako eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira. Eskabidea helbide elektroniko honen bidez eskuratu eta beteko da: www.spri.eus/globaltraining

3.– Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erakundearen legezko ordezkariaren izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren zenbakia (NAN) edo atzerriarraren identifikazio-zenbakia (AIZ). Eskabidea sinatzen duen pertsonaren NANA.

b) Identifikazio Fiskaleko Txartela, salbu eta laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariak sinatu badu, pertsona juridikoaren ordezkariaren indarrean dagoen ziurtagiriaren bidez, agintari ziurtatzaile aitortu batek emana, eskatzailearen IFZ zenbakiari eta izen sozialari buruzko datua egiaztatu ahal izateko.

c) Erakundearen eratze-eskriturak.

d) Legezko ordezkariaren notario-ahalordea, salbu eta laguntza-eskaera eskatzailearen ordezkariak sinatu badu, pertsona juridikoaren ordezkariaren indarrean dagoen ziurtagiriaren bidez, agintari ziurtatzaile aitortu batek emana.

e) Banku-kontuaren titulartasun-ziurtagiria, ordainketak egiteko.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, erakunde eskatzaileak uko egiten badio SPRIk alderdi horiek ofizioz egiaztatze ditzan.

g) Oinarri hauen 4.1.b) artikuluan eskatzen den esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa, garatutako proiektuak, deialdiak edo hitzarmenak identifikatuz.

h) Nazioarteko sareren bateko kide direla edo antzeko ezaugarriak dituzten atzerriko beste erakunde batzuekin lankidetzak hitzarmenak edo lankidetzak akordioak sinatu dituztela egiaztatzen duten agiriak, 4.1.d) artikuluan adierazitakoa betetzeko.

i) «Basque Global Industry» beka-programa garatzeko proiektua, honako hauek barnean hartuta:

i) Deialdia egitea proposatzen duen Basque Global Industry beken kopurua, oinarri hauen eranskinetan aurreikusitako baldintzen arabera.

ii) Hautatutako gazteei praktikak egingo diren enpresan edo erakundean hasi aurretik eman beharreko prestakuntza-plana. Prestakuntza-plan horrek 40 eta 60 ordu bitarteko iraupena izango duten ikastaroak barne hartuko ditu nahitaez, eta oinarri hauen 5. artikuluan zehazten den oinarrizko programara egokituko dira.

iii) Egin beharreko ekintzen kronograma, proiektua deialdiaren arabera garatuko dela bermatzeko.

iv) Aurrekontu osoa, aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak eta proiektuan sartutako ekintzen garapena jasoko dituen.

v) Erakunde eskatzaileak proiektua garatzeko proposatzen dituen giza baliabideak, baliabide materialak eta/edo esperientzia.

vi) Proiektuaren garapenean inplikaturako erakunde juridikoko pertsonen curriculum vitaeak.

vii) Aurrekoaz gain, ezinbestekoa izango da II., III. eta IV. eranskinak behar bezala beteta aurkeztea.

Bestela, eranskin horiek zuzendu egingo dira, 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

j) Hainbat erakundek lankidetzak-modalitateko eskaera bateratua aurkezten badute, beharrezkoa izango da lankidetzako erakunde guztiek sinatutako barneko lankidetzak-akordio bat aurkeztea eta erakunde guztiek II. eranskina sinatzea. Akordio horrek xehetasunez azaldu beharko du nola laguntzen duen bikaintasuna lortzen proiektuaren garapenaren fase guztietan; publizitatea eta deialdia, hautaketa, prestakuntza, praktika onenen bilaketa eta prozesu osoaren monitorizazioa. Era berean, akordio horretan adierazi beharko da dirulaguntzaren portzentajezko banaketa erakundearen artean, eta Basque Trade & Investment agentziaren (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrean egin beharreko kudeaketa guztietarako solaskide bakarra zein den adieraziko da, zeina eskaeran parte hartzen duten erakunde guztien erantzule izango baita.

k) Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala bada-gokio, zein erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

l) Oinarri Arautzaile hauen II. eranskinean ageri den normalizatutako ereduaren edukiaren arabera egindako erantzukizunpeko adierazpena.

4.– SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak laguntza-eskabidean aurkeztutako proiektua behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkoa den dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei.

5.– Ez da nahitaezkoa izango Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren esku dauden indarreko dokumentuak aurkeztea. Erakunde eskatzaileak dokumentazio hori aurkeztu badu, eskabidean adierazi beharko da zer egunetan eta zer organo edo bulegotan aurkeztu zen.

Era berean, SPRIk ofizioz egiaztatuko du, eskatzailea aurka ez badago, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela.

6.– Laguntza-eskaera, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, hautatutako hizkuntza ofizialean aurkez daiteke. Halaber, laguntza-eskaeratik eratorritako jardueretan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatutako Oinarrizko 10/1982 Legean, azaroaren 24koan, ezarritakoaren arabera.

8. artikulua.– Onartzea eta zuzentzea.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan akatsen bat, hutsegiteren bat edo zehaztasun-faltaren bat dagoela, erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio akatsa zuzentzeko, eta ohartaraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, atzera egin dela adierazten duen ebazpena emango da.

9. artikulua.– Esleipenaren prozedura.

1.– Erakunde onuradunek bekak kudeatzeko dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dituzte. Horretarako, aurkeztutako eskabideak baloratuko dira, haien arteko hurrenkera ezartzeko, 10. artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

2.– Dirulaguntzak lehentasun-hurrenkerari jarraituz esleitu zaizkie 10. artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten erakundeei, harik eta deialdi honi esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu arte. Horrela, ez da bermatzen, inola ere, gutxieneko puntuazioa lortzen duten eskatzaile guztiak onuradun izango direnik.

10. artikulua.— Balorazio-irizpideak eta haztapen-faktoreak.

Balorazio-irizpideak taula honetan zehaztutakoaren arabera haztatuko dira. Onuradun izateko, gutxienez 60 puntu lortu behar dira.

Irizpidea	Haztapena
1.– Praktiken argitasuna, honako hauei buruzko informazioa jaso beharko duena: jarduera, sektorea, enpresaren edo erakundearen jatorria eta tamaina, eskatutako profila, praktika egingo den helmuga geografikoari buruzko informazioa, egin beharreko zereginen deskribapena, jardueren egutegia eta indarreko legeriarekin bat etorritik praktikarako beharrezkoa den bisatu edo baimen mota.	Gehienez 30 puntu
Eskainitako praktiken % 85 baino gutxiago modu argi eta zehatzean deskribatuta daude, eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	0 puntu
Eskainitako praktiken % 85, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude, eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	15 puntu
Eskainitako praktiken % 90, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude, eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	20 puntu
Eskainitako praktiken % 93, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude, eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	25 puntu
Eskainitako praktiken % 95, gutxienez, argi eta zehatz deskribatuta daude, eta goian adierazitako alderdiak jasotzen dituzte.	30 puntu
2.– Euskadi 2030 Industria Planaren IRABAZI eta HAZI tipologietan, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren Espezializazio Adimenduneko Arloetan edo industriari lotutako sektoreetan (Nazioartekotze Aholkularitza eta Europako Proiektuak) kokatutako praktikak. 2030eko Industria Plana, 32. orrialdetik aurrera: https://bideoak2.euskadi.eus/2025/06/11/news_102489/PlanIndustria_completo.pdf ZTBP 2030, 59. orrialdetik aurrera: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pcti_euskadi_2030/es_def/adjuntos/PCTI-EUSKADI-2030.pdf	Gehienez 20 puntu
= % 100 aipatutako tipologia, arlo eta sektoreetan	20
≥ % 90 aipatutako tipologia, arlo eta sektoreetan	15
Gututzkoaren % 80 ≤ aipatutako tipologia, area eta sektoreetan gututzkoaren < % 90	10
Gututzkoaren % 70 ≤ aipatutako tipologia, area eta sektoreetan gututzkoaren < % 80	5
Lehentasunezko arloak gututzkoaren < % 70	Eskainitako praktiken baldintzak ez betetzea (16. art.)
3.– Praktikak atzerriko enpresa eta erakundeetan	Gehienez 20 puntu
Atzerritarrak, gututzkoaren ≥ % 50	20
Atzerritarrak, gututzkoaren < % 50	0
4.– Bekaz baliatzeko aldien batez besteko luzera (eskaintzen % 90i aplikatzen zaio)	Gehienez 20 puntu
Batez besteko luzapena > 5 hilabete	20
4 hilabete < Batez besteko luzapena ≤ 5 hilabete	15
3 hilabete < Batez besteko luzapena ≤ 4 hilabete	10
1 hilabete < Batez besteko luzapena ≤ 3 hilabete	5
Batez besteko luzapena ≤ 1 hilabete	0
5.– Erakundeen arteko lankidetzak, barneko lankidetzak-akordioaren bidez egiaztatua	10
Guztira	100

Irizpideen deskribapena:

1.– Praktiken argitasuna (gehienez 30 puntu): honako hauei buruzko informazioa: jarduera, sektorea, enpresaren edo erakundearen jatorria eta tamaina, eskatutako profila, praktika egingo den helmuga geografikoari buruzko informazioa, egin beharreko lanen deskribapena, jardueren egutegia eta indarreko legeriarekin bat datorren praktikarako behar den bisatu edo baimen mota.

2.– Euskadi 2030 Industria Planeko Irabazi eta Hazi tipologietan, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planeko Espezializazio Adimenduneko arloetan edo industriari lotutako sektoreetan (Nazioartekotze Aholkularitza eta Europako Proiektuak) sartutako praktiken ehunekoa (gehienez 20 puntu): aipatutako tipologia, arlo eta sektoreetan kokatzen diren aurkeztutako praktika guztien ehunekoaren arabera puntuatuko da.

3.– Atzerriko enpresen eta erakundeen ehunekoa (20 puntu): erakundeei aukera ematen zaie euskal enpresekin eta estatuko erakundeekin lankidetzak akordioak sinatzeko, baina programaren helburua bekadunek beste enpresa-kultura batzuk ezagutzea eta haietatik ikastea denez, atzerriko enpresa eta erakundeetan aurkeztutako praktika guztien ehunekoaren arabera puntuatuko da.

Euskal enpresetan eta estatuko erakundeetan egindako praktiken % 50 gainditzen bada, punturik ez jasotzeaz gain, gehienezko % 50 hori gainditzen dutenak eta unibertsitateko tituludunak behar dituztenak luzapenik gabeko praktika gisa zenbatuko dira artikuluko 4. apartatuko balorazioa egitean.

Euskal enpresetan eta Lanbide Heziketako tituludunak behar dituzten Estatuko erakundeetan egindako praktiken kasuan, kolektibo horrek atzerrian praktikak egiteko dituen aukerak unibertsitateko tituludunenak baino txikiagoak direnez, ez dira zenbatuko atzerriko enpresetan egindako praktiken ehunekoa kalkulatzeko.

Irizpide hori ebaluatzeko, Euskadiko edo Estatuko enpresen filialak, sukurtsalak eta ordezkaritza-bulegoak atzerrikoak ez diren enpresatzat hartuko dira, baita Estatuko organismoek atzerrian dituzten ordezkariak ere.

4.– Praktikaldiaren luzapena erakunde onuradunaren, enpresaren edo erakundearen kontura (gehienez 20 puntu): praktikaldia gutxienez 6 hilabetez luzatu izana positiboki baloratuko da. Luzapen horren gehieneko epea beste 6 hilabetezko izango da. Lehen 6 hilabeteetako gastu guztiak Programaren aurrekontuaren kargura finantzatuko dira, eta luzapen-aldiko gastu guztiak, berriz, praktika egiten den erakunde onuradunak, enpresak edo organismoak ordainduko ditu. Enpresek helmugan egindako lan-kontratazioak praktikaldien luzapen gisa puntuatuko dira, eta eskainitako kontratazio-hilabeteak baloratuko dira. Luzapenak irauten duen bitartean, bekadunek ez dute loturarik izango eta ez dira Basque Trade & Investment, SPRI edo Eusko Jaurlaritzaren ardurapean egongo.

Balorazioa egiteko, enpresak edo erakundeak behar bezala sinatuta aurkeztu beharko du oinarri hauen III. eranskinean eskuragarri dagoen aurreakordio-eredua.

5.– Erakundeen arteko lankidetzak eraginkorra eta erreala (gehienez 10 puntu): hainbat erakundek beren proiektua elkarrekin, elkarrekin lankidetzan, aurkeztu dutenean emango ditu puntuak. Lankidetzaren helburua proiektuaren garapenaren fase guztietan bikaintasunik handiena lortzea izan behar da; publizitatea eta deialdia, hautaketa, prestakuntza, jardunbide onenak bilatzea eta prozesu osoa monitorizatzea.

Artikulu honetan jasotako irizpideak ebaluatzeko, IV. eranskina (Eskainitako praktiken laburpen-taula) beteta aurkeztuko da. Erakunde eskatzaileei dagokie, jasotako praktiken proposamenak eta beren esperientzia ikusita, balioesten duten prestakuntza-proposamena taxutzea.

11. artikulua.– Eskabideak aztertzea eta ebaluatzea. Erakunde laguntzailearen eginkizunak.

1.– Balorazio Batzordeari dagokio aurkeztutako eta onartutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea. Honako hauek osatuko dute Balorazio Batzordea:

– Basque Trade & Investment agentziako (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) programetako arduraduna eta arduradun juridikoa. Presidente gisa jardungo du: Rubén Reoyo. Ordezkoa: Usoa Aguirre, Basque Trade & Investment agentziako (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) Kanpoko Sareko zuzendaria.

– Basque Trade & Investment agentziako (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) programetako teknikaria. Batzordekide gisa jardungo du: Enbor Barruetabeña. Ordezkoa: Leire Intxausti, Basque Trade & Investment agentziako (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) Sare-teknikaria.

– SPRIren Nazioartekotze programen teknikaria. María Iciar Gaviña. Idazkari gisa arituko da. Ordezkoa: Enara Corredera, Basque Trade & Investment agentziako (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) Giza Baliabideetako teknikaria.

Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren erakunde laguntzailea izango da programa honetan, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Bidalitako dokumentazio teknikoa aztertzea.
- b) Egindako gastu hautagarriak behar bezala gauzatzen direla ikuskatzea.
- c) Beken garapenarekin lotuta egoki iritzitako egiaztapenak egitea. Onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute.
- d) Egindako ikuskapenen txostenak egitea.
- e) Gerta daitezkeen gorabeherak SPRIri jakinaraztea.
- f) Oinarri hauetan jasotako guztiak.

2.– Lehiaketan parte hartu ahal izateko eskatzen diren baldintzak eta oinarri hauetan ezarritako balorazio-irizpideak oinarri hartuta, Balorazio Batzordeak, proiektuak aztertu eta kalifikatu ondoren, aurkeztutako eta onartutako eskabideak zerrenda beherakor batean ordenatuko ditu, lortutako puntuen arabera, eta horietako bakoitzari proposatutako praktiken kopurua adieraziko du, deialdi honi esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu arte.

Berdinketa gertatuz gero, 10. artikuluko 1. balorazio-irizpidean puntuaziorik handiena lortu duen entitatea gailenduko da, eta, hala ere, berdinketak jarraitzen badu, gainerako irizpideei jarraituko zaie, ordena honetan: 4, 2, 3 eta 5. Aurretik xedatutakoa aplikatuz, berdinketa haustea ebazterik ez badago, praktika gehien kudeatzea eskatu duen erakundea nagusituko da, eta berdinketarekin jarraituz gero, gainerako praktikak modu ekitatiboan banatuko dira azken lekuan geratu diren erakundeen artean.

3.– Batzordeak hartutako erabakian oinarrituta, erakunde onuradunei bekak emateko proposamen bat idatziko da, eta organo kudeatzaileari helaraziko zaio.

12. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitatea.

1.– Deialdi honetan aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira, eta prozedura hori ebaztea SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze zuzendariari dagokio.

2.– Hartzen den ebazpenak zehaztuko du eskatutako laguntzak emango diren edo, hala bada-gokio, ukatuko diren. Ematen badira, erakunde onuradunaren izen soziala, onartutako «Basque Global Industry» beka-proiektuaren zenbatekoa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta finantzatuko diren beken kopurua adieraziko dira. Ukatutakoen kasuan, erakunde eskatzaileen izen soziala eta ukatzeko arrazoiak jasoko dira.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote erakunde interesdunek SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Zuzendaritzari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute zuzenean Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde interesdunei. Nolanahi ere, programaren webgunean (www.spri.eus/globaltraining) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da erakunde onuradunen zerrenda, jende guztiak horren berri izan dezan, bakoitzak kudeatu beharreko beka-kopurua eta bakoitzari emandako zenbatekoa adierazita.

5.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa erakunde interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, laguntzen deialdiaren ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota, ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Oinarri hauen babesean ematen diren dirulaguntzen erakunde onuradunek DEALen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak izango dituzte, eta, bereziki eta xede mugatzailearik gabe, honako hauek:

a) Jarduera egitea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

b) Eskakizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea SPRIren aurrean eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera egitea.

c) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 10 egun baliodun igaro ondoren, laguntzari berariaz eta idatziz uko egin ez bazaio, laguntza onartu egin dela ulertuko da.

d) Dirulaguntza zertarako eman den, xede horretarako erabiltzea, eta gastu horiek finantzatzeko erabiltzea.

e) Hala badagokio, SPRIk egin beharreko egiaztapen-jarduketak baimentzea edo Eusko Jaur-laritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak, Euskadiko Kontu Publikoen Auzitegiak edo estatuko zein erkidegoko beste edozein kontrol-organo eskudunek jasotako dirulaguntzen gainean egin beharreko beste edozein egiaztapen eta kontrol finantzario baimentzea, aurretik aipatutako zeregin horiek egiteko beharrezkoa den edozein informazio emanez.

f) SPRIri eta Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) sozietateari jakinaraztea hemen araututako laguntzen helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik jasotako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak.

Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsen erabilera justifikatzen den unean edo aurretik.

g) SPRIri jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein gorabehera objektiboren zein subjektiboren aldaketa.

Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsen erabilera justifikatzen den unean edo aurretik.

h) Dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik eta ordainketa egiteko unean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, bai eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, ogasunaren arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailburuaren aginduz erregelamendu bidez zehazten den moduan. Eskatzaileak SPRIk ofizioz kontsultatzearen aurka egiten badu, dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu.

i) Izaera juridikoak hala eskatzen badu, kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko merkataritza-legeriak eta legeria sektorialak eskatutako baldintzetan, bai eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.

j) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan baitaitezke.

k) Jasotako funtsak edo diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik lortutakoa itzultzea, DEALen 36. artikuluan jasotako kasuetan.

l) Hizkuntza eta irudiak ikuspegi intersektzionalarekin eta, bereziki, sexuaren eta generoaren alderdiarekin errespetuz erabiltzea dirulaguntzaren xede den jarduerak edo proiektuak behar dituen dokumentazio eta material guztietan.

m) Herritarren hizkuntza-eskubideak eta, bereziki, euskararen erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduerarekin lotutako argitalpen, iragarki eta publizitatean.

n) Onuraduna DEALen 48.1 artikuluan aurreikusitako kasuan dagoenean, deslokalizazioan ez erortzea.

ñ) Enpresa edo erakundeekin berariazko lankidetzak-akordioak lortzea, 16. artikuluan eta I. eranskinean zehaztutako baldintzak betetzen dituzten praktikak atzerrian eskaintzeko.

o) Esleitzen zaizkien «Basque Global Industry» beken deialdia egitea eta horiek kudeatzea, hautaketatik hasi eta praktikak amaitu arte, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera. Prozesu horretan, onuradunak bermatu beharko du eskatutako profila betetzen duten hautagai guztiek aukera izango dutela beren eskaera bere intereseko eskaintza guztietan aurkezteko.

«Basque Global Industry» beken dibulgazio-elementu guztietan, erabilitako euskarria edozein dela ere, bai eta deialdi-, hautaketa-, emate- eta jarraipen-dokumentu guztietan ere, lehentasunezko leku batean agertu behar dira «Basque Global Industry» beka-programa identifikatzen duen logoa, Basque Trade & Investment agentziaren logoa (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren logoa eta Eusko Jaurlaritzaren logoa.

Era berean, adierazitako elementu eta dokumentuetako testuetan berariaz adierazi behar da, behar adina aldiz eta lehentasunezko leku batean, beka horiek Basque Trade & Investment agentzia (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia eta Eusko Jaurlaritzaren ekimena direla. Azkenik, aipatutako elementu eta dokumentuen testuetan, leku aipagarrian aipatu beharko da Global Training programa hainbat erakunde onuradunen bidez

kudeatzen dela, eta beharrezkoa izango da Basque Trade & Investment agentziaren webgunerako esteka bat sartzea, bertan, beken baterako eskaintza kontsulta daitekeela azalduz.

p) Basque Trade & Investment agentziaren (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrean egin beharreko kudeaketa guztietarako solaskide bakarra izendatzea.

q) Basque Trade & Investment agentziari (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), erakunde laguntzailea den aldetik, hautaketa-prozesuko proben eta elkarriketen egutegi osoaren berri ematea, ordezkariek bertara joan ahal izateko denbora nahikoarekin. Proben metodologia SPRIk onartu beharko du.

r) Aldez aurretik ezarritako prestakuntza-ikastaroak ematen direla ziurtatzea.

s) Beka emateko agiria egitea, eta hura jakinarazi eta argitaratzea, I. eranskineko V. ataleko 4. eta 5. apartatuetan adierazten den bezala.

t) Beka bakoitzarekin lotutako aseguruak kudeatzea eta bekadunei Gizarte Segurantzaren alta ematea.

u) Emandako «Basque Global Industry» beka bakoitzaren jarraipena egitea, bekadunak programan dagoen bitartean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko. Horretarako, bekadun bakoitzari eta praktikak egingo diren enpresa edo erakundeei dagozkien txostenak eskatuko zaizkie. Jarraipen horren testuinguruan, Basque Trade & Investment-i (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), SPRIren filiala den sozietateari, hilerok jakinarazi beharko dizkio bekadunen egoeran izandako aldaketak (helmugako irteerak, uko egiteak, Euskadira itzultzeak, azken orduko aldaketak), hilabete bakoitzaren lehen bost egun baliodunetan.

v) Larrialdietarako harremanetarako telefono bat gaitzea, Basque Trade & Investment agentziaren (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRIren eskura egongo dena.

w) Emandako «Basque Global Industry» beken kopurua eta horien ezaugarriak agiri bidez justifikatzea. Horrekin batera, beken garapena zehazten duen laburpen-txosten bat aurkeztuko da.

x) Bekadunei bakoitzari dagokion zuzkidura ordaintzea. Ordainketa hori hiru zatitan egingo da: bata, % 50ekoa, praktikak hasi aurretik, beka eman ondoren; bestea, % 40koa, praktiken iraupe-naren erdiari dagokion hilabeteen; eta gainerako % 10a, praktika amaitzean eta eskatzen zaizkion dokumentu guztiak aurkeztean. Bekadunak bekari uko egiten badio edo bekadun izateari uzten badio, erakunde onuradunak hartu gabeko aldiari dagozkion ordaindutako zenbatekoak erreklamatu beharko ditu. Ez-ordaintzeak azken likidazioan egotzi ahal izateko, erakunde onuradunek egiaztatu beharko dute zenbateko hori dagokion legezko bidetik erreklamatu zaiola bekadunari, eta azken likidazioaren egunean oraindik ez dela epai irmorik eman edo oraindik ez zaiola erakunde onuradunari itzuli. Justifikatu ondoren zor diren zenbatekoak itzultzen badira, zenbateko horiek SPRIri itzuli beharko zaizkio.

y) Hainbat erakundek lankidetzaren modalitatean baterako eskaera bat aurkeztean badute, proiektuaren kudeaketa bakarra eskaini beharko dute, eta ez da baimenduko erakunde lankideen artean beka banatzea eta horiek bereizita kudeatzea.

z) Eskaintako bekaren luzapen-aldiak errespetatuko direla bermatzea, ezinbesteko kasuetan edo behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera.

aa) Dirulaguntzaren xede diren programa, jarduera, inbertsio edo jarduketan finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia ematea, gardentasunari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

14. artikulua.— Laguntzak ordaintzea eta erakunde onuradunek emandako laguntza justifikatzea.

1.— Oinarri hauen babesean erakunde onuradunei emandako laguntzak 13.c) artikuluan adierazitako epea igaro eta berariaz uko egin ez bazaie ordainduko dira, honela:

a) Lehen ordainketa, emandako zenbatekoaren % 10ekoa (kontingentzien partida izan ezik), laguntza onartu ondoren.

b) Bigarren ordainketa, emandako zenbatekoaren % 40 (kontingentzien partida izan ezik), honako hau aurkeztu ondoren:

i) Bekadunen zerrenda. Zerrenda horretan, gutxienez, izena, abizenak, NANA, jaiotze-data, generoa, telefonoa, posta elektronikoa, ikasketak, dakizkien hizkuntzak, enpresa, herrialdea eta esleitutako hiria jasoko dira. Horrez gain, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakunde laguntzaileak beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarri guztia eskatu ahal izango du bekadunei eta esleitutako enpresei buruz.

ii) Banakako bekak emateko agiriak, data jarrita eta hautatutako bekadun bakoitzak sinatuta, I. eranskineko V. ataleko 4. eta 5. apartatueta adierazitakoaren arabera.

iii) Hautagaiek aurkeztutako ingeleseko titulu baliiodunen ziurtagirien kopia edo, halakorik ezean, ingeleseko proban lortutako kalifikazioaren ziurtagiria.

iv) Hautatutako bekadunei emandako prestakuntza-materialak.

Bekadunen zerrenda aurkezteko azken eguna 2026ko abenduaren 31 izango da. Ezin izango da beka berririk eman bekadunen zerrenda aurkeztu ondoren, ez eta 2026ko abenduaren 31ren ondoren ere.

c) Hirugarren eta azken ordainketa bat, dirulaguntza honen kargura sei hilabeteak amaitu eta justifikatzean. Gainerako % 50a ordainduko da kontzeptu guztiengatik, kontingentziak barne, halakorik izan bada. «Basque Global Industry» beken kudeaketatik eratorritako gastuei aurre egiteko azken ordainketa osoa edo zati bat aldeztu aurretik ordaindu behar dutela egiaztatzen duten erakunde onuradunek eskaera egin ahal izango diote Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakunde laguntzaileari, eta 180.000 eurotik gorako aurrerakinatarako banku-abala aurkeztu beharko dute, baita diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko beharrezko finantzaketa gisa eskatzen den ordainketa aurreratuaren beharra justifikatu ere. Aurrerakinak 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera soilik eskatu ahal izango dira; Nazioartekotzeko Zuzendaritzak ebatziko ditu eskabidean justifikatutako inguruabarren arabera, eta gehienez ere 2 hilabeteko epean ordainduko dira, ematen direnetik zenbatzen hasita, eta, hala badagokio, bermea eratu ondoren.

2.— Justifikazioak SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren aurrean aurkeztu beharko dira, proiektua amaitzen denetik hilabeteko epean, deialdi honen aurrekontuaren kargura, eta gehienez ere 2027ko azaroaren 30ean. Salbuespen gisa, proiektua deialdi honen aurrekontuaren kargura amaitzen denetik hilabeteko epea uztailearen 1etik abuztuaren 31ra bitartean amaitzen denean, justifikazioa aurkezteko azken eguna 2027ko irailaren 30a izango da.

3.— Justifikazio-agiri horien artean egongo dira, gutxienez:

a) Bekadun bakoitzak egindako lanen eta jardueren txosten zehatza.

b) Bekaren garapenari buruzko txosten orokorra, enpresen eta bekadunen zerrendarekin.

c) Erakunde onuradunak bekadunei egindako banku-transferentzien egiaztagiria.

d) Gizarte Segurantzari egindako ordainketen egiaztagiria (langileen izen-zerrenda edo alten eta baje agiriak).

e) Kontratututako aseguruaren egiaztagiriak.

f) Prestakuntza-ikastaroen antolaketa-kostuaren egiaztagiriak.

g) Kudeaketa-, administrazio-, komunikazio- eta publizitate-gastuen egiaztagiriak.

h) DEAL aplikatuz, erakunde onuradunak eskatu behar zituen hiru aurrekontuak.

i) Praktika bakoitzean eskainitako luzapenaren froga dokumentala (praktikaldiko kontratua edo antzekoa), eta enpresak eskainitako konpromisoa bete ez badu, enpresak eta erakundeak egindako txostenak, arrazoiak zehaztuta.

Faktura guztiak BEZik gabe egotzi beharko dira, erakunde onuradunak BEZik gabeko jarduerak soilik egiten dituenetan izan ezik; kasu horretan, dagokion ogasunaren ziurtagiriaren bidez justifikatu beharko da.

Erakunde kooperanteen artean ezin da ez auto-fakturaziorik ez fakturaziorik egin.

Erakunde onuradunaren barneko langileek egindako prestakuntza, kudeaketa, administrazioa, komunikazioa edo publizitatea egotziz gero, beharrezkoa izango da pertsonen izenak, zeregin zehatzak, eskainitako orduak eta horien ordu-kostua zehaztea.

Prestakuntza emateko erakunde onuradunaren barne-aretoak erabiltzeagatik gastuak egozten badira, ordu kopurua eta aukera-kostua justifikatu beharko dira, eta erakundearen areto-erreserben tarifa ofizialak aurkeztu beharko dira.

Ez da inolako ordainketarik egingo baldin eta onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzulketa-ebazpen baten bidez zorduna bada.

15. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza ematen duen organoak, ofizioz edo erakunde interesdunak eskatuta, egoera horren balorazio zehatza egin ondoren, emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzea erabaki ahal izango du, honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Alde baten instantziari erantzunez gero, pertsona onuradunak jakin bezain pronto komunikatzea eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioaren aurretik, DEALen 14.e artikuluan jasotako betebeharra betez.

b) Zenbatekoa ez handitzea.

c) Benetan egindako edo egingo den jarduera edo jokabidea oinarri arautzaileen xedearen barruan egotea.

d) Aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak ez egotea onuradunaren borondatearen mende.

e) Aldaketa eragin duten elementu eta inguruabar berriak, hasierako dirulaguntza emateko unean gertatu izan balira, dirulaguntza ukatzeko arrazoi ez izatea, eta aldaketak ez eragitea hasieran onartutako proiektua nabarmen aldatzea.

f) Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.

2.– Onuradunak emandako dirulaguntza osoa edo partziala jaso badu, eta aldaketarekin zenbatekoa txikitzen bada, DEALen 40. artikuluan aurreikusitakoa jarraituko da.

16. artikulua.– Eskainitako praktiken baldintzak.

1.– Hautagarriak izan daitezen, erakunde eskatzaileek aurkeztutako praktika guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Helmugako enpresek edo erakundeek oinarri hauen III. eranskina osorik bete eta sinatu beharko dute. Erakunde eskatzaileak egiaztatu beharko du III. eranskina behar besteko ahalordeak dituen ordezkari batek sinatu duela.

b) Bekadunak eskatutako herrialdean egonaldia formalizatzeko bisatua edo bestelako baimena lortzea ezinbesteko baldintza den kasuetan, erakunde onuradunak ziurtatu beharko du helmugako enpresak edo erakundeak betetzen dituela herrialde horrek baldintza horiek lortzeko eskatzen dituen baldintzak. Horrez gain, enpresa edo erakunde hartzaileek kudeaketa hori egin dutela berretsi beharko dute III. eranskinean.

c) Luzapen-aurreakordioa sinatzen duten enpresen edo erakundeen kasuan, III. eranskinean adierazi beharko dute luzapenak irauten duen bitartean kobratuko den hileko gutxieneko zenbatekoa, eta zenbateko hori ezin izango da 1.000 eurotik beherakoa izan.

d) III. eranskinean luzapen-aurreakordioa sinatzen duten enpresa edo erakundeek konpromisoa hartuko dute luzapena egin izanaren agiri bidezko froga aurkezteko (praktikaldiko kontratua edo antzekoa) eta, eskainitako konpromisoa betetzen ez badute, txosten bat egiteko, arrazoiak zehaztuta eta bidezko justifikazioak aurkeztuta.

e) Enpresa edo erakundeek gehienez 5 praktika eskaini ahal izango dituzte egoitza bakoitzeko, eta gehienez bi tutoretza-arduradun bakoitzeko.

f) Erakunde eskatzaile bakoitzak aurkeztutako praktiken % 70ek sektore hauen barruan egon beharko dute:

i) Euskadi 2030 Industria Planaren Irabazi eta Hazi tipologiak (32. orrialdea eta hurrengoak): Automobilgintzako osagaiak, mugikortasun jasangarria, fabrikazio aurreratua, energia, metalurgia, aeroespaziala, biosanataria, soluzio digital aurreratuak, zibersegurtasuna, AA eta quantuma, sare adimendunak eta biltegiatzea, erregai berriagarriak.

ii) Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren espezializazio adimenduneko arloak (59. orrialdea eta hurrengoak): Industria Adimenduna, Energia Garbiagoak, Osasun Pertsonalizatua, Elikadura Osasungarria, Ekoberrikuntza, Hiri Iraunkorrak, Euskadi Sortzailea.

iii) Industriari lotutako sektoreak: Nazioartekotze Aholkularitza eta Europako Proiektuak.

17. artikulua.– Aldaketak praktiken eskaintzan.

1.– Erakunde eskatzaileek erreserbako praktikak aurkeztu ahal izango dituzte praktika nagusiak ordezkatzeko. Erreserba-praktika horiek praktika nagusiak ordezteko erabili ahal izango dira, salbuespenezko kasuetan, profil jakin batzuk ez daudela egiaztatzen bada, edo ordezkapenak egiteko beharrezkoak diren bisak edo baimenak lortzeko ezintasunaren, mugak ixtearen, herrialdeko segurtasun-baldintzak okertzearen, xede-enpresa edo -erakundeen aldebakarreko baliogabetzeen edo sor daitezkeen ezinbesteko beste edozein gairen ondoriozko balizko ezeztapenen aurrean.

2.– Bisatua edo baimena lortzea ezinezkoa delako edo bestelako arrazoi justifikatuak daudelako, erakunde onuradunek, enpresekin ados jarrita, praktikak egingo diren herrialdea eta/edo hiria bakarrik aldatu nahi badute, erreserba-praktiketara jo gabe egin ahal izango dute, eta gainerako gai garrantzitsuak aldatu gabe mantendu beharko dituzte.

3.– Erreserba-praktikak aurkeztu nahi dituzten erakunde eskatzaileek IV. eranskinean (Eskainitako praktiken laburpen-taula) praktika nagusietarako eskatzen den informazio bera aurkeztu beharko dute, erreserbakoak eta nagusiak bereiziz dagokion zutabearen.

4.– Salbuespenezko kasuetan, gutxienez 10 erreserba-praktika aurkeztu dituzten erakunde onuradunek erreserba-praktiken artean ez dauden praktikekin ordezkatu ahal izango dituzte praktika nagusiak, eta praktika nagusietan eskainitako plaza-kopurua ere handitu ahal izango da. Kasu horietan, ezinbestekoa izango da praktika nagusien ordezkari erreserbakoak egitea ezinezkoa dela egiaztatzea eta Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakunde laguntzailearen onarpena izatea.

5.– Praktika nagusien ordezkari oinarri hauetako 10. artikuluan deskribatutako irizpide baloragarrietan antzeko ezaugarriak dituzten praktikak baino ezin izango dira egin.

6.– Aldaketa-proposamen guztiak Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakunde laguntzaileari jakinarazi beharko zaizkio, bekadunen zerrenda aurkezteko gehieneko eguna baino 15 egun baliodun lehenago gutxienez, aztertu ahal izateko. Onarpena jaso beharko da aldaketak egin ahal izateko.

18. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Erakunde onuradunek ez badute betetzen oinarri hauetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintzaren bat, edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako baldintzaren bat, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko dute. Kasu horretan, ordura arte jasotako laguntzen zenbatekoa itzuli beharko diote SPRIri, dagozkion legezko interesekin batera, eta, behar izanez gero, horiek itzultzeko behar diren legezko ekintzak gauzatuko dira.

2.– Nolanahi ere, artikulua honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ez-betetzat joko dira honako hauek:

a) Laguntza-eskaeran eta dokumentazio osagarrian jasotako jarduerak aldatzea, SPRIren baimenik gabe. Ez-betetzea izango da, ondorio hauetarako, SPRIri ez jakinaraztea proiektua gauzatzean izandako edozein aldaketa, baldin eta aldaketa horrek aldatu egiten baditu dirulaguntza emateko orduan SPRIk aztertu zituen baldintzak. Aldaketak baimendu ahal izango dira, baldin eta SPRIri eskatu bazaizkio eta erakunde onuradunak justifikatu baditu, ahal den neurrian, proiektuan aplikatu aurretik, eta betiere programa honen bidez lortu nahi diren jardueren eta helburuen izaera indargabetzen ez bada.

b) Gastu hautagarriak epearen barruan ez justifikatzea edo programa honetan edo laguntza emateko ebazpenean eskatutako baldintzak ez betetzea.

c) Diruz lagundutako proiektua egiteko ezarritako epeak gainditzea, betiere epea aldatzeko edo luzatzeko baimenik ez badago.

d) Laguntza programa honetan ezarritako baldintza eta betekizunak bete gabe edo laguntza ematerakoan ezarritakoak bete gabe lortu izana.

e) Programan edo laguntza ematean aurreikusitako edozein kontrol-neurri ukatzea edo oztopatzea.

f) Proiektuaren beste edozein desbideratze edo laguntza emateko ebazpenean xedatutako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

g) DEALen aurreikusitako kausak.

h) Emandako beken % 50 gutxienez ez esleitzea, oinarri hauetan aurreikusitako baldintza eta epeetan.

3.– Ez-betetzea egiaztatzeko espedientea hastea, izapidetzea eta ebaztea SPRIri dagokio.

4.– Deialdi honetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, eta, besteak beste, DEALen 51. artikulua aplikatuz enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa egiten bada, eta, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak betetzen ez badira, laguntza ezeztatu egingo da, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari itzuli beharko zaizkio laguntzak eta berandutze-interesak. Berandutze-interes horiek zuzenbide publiko diru-sarreratzat joko dira, DEALen horri buruz xedatutakoaren arabera, dagozkion legezko ekintzak eta zehapenak alde batera utzi gabe. SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Nazioartekotze Zuzendaritzari dagokio laguntzak ezeztatzeko eta, hala badagokio, partzialki edo osorik itzultzeko espedienteak hastea eta ebaztea.

5.– Ezarritako baldintzen zati bat betetzen bada, betiere egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko zalantzarik gabe jardun duela, dirulaguntzaren zati bat ordainduko da, edo, hala badagokio, zati bat itzuli beharko da, eta kalkulaterakoan kontuan hartuko da egindako jardueraren proportzioa, guztizkoaren gainean. Nolanahi ere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen zenbateko partziala bat etorriko da emandako dirulaguntzaren benetako eta behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, betiere justifikazioa egiaztatu eta erakunde emaileak onartu ondoren.

6.– Halaber, programaren xede den jardueraren kostua gainditzen duen laguntzaren zatia itzuli beharko da, baldin eta beste laguntza batzuk metatzeagatik gainfinantzaketa gertatzen bada, laguntza kobratu ondoren. Kasu horretan itzuli beharreko zenbatekoa gertakaria deklaritzen duen eta itzulketa erabakitzen duen ebazpenean zehaztuko da.

7.– Eskainitako luzapen-epea % 50etik gorako ehunekoan betetzen ez bada, ezinbesteko kasurik edo behar bezala justifikatutako arrazoirik gabe, erakunde onuradunak 5.2.d) artikuluan aurreikusitako kudeaketa-partidari dagokion laguntza itzuli beharko du.

8.– Borondatezko epean itzulketarik egiten ez bada, premiamendu-bidetik egin ahal izango da, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aplikatu beharreko araudia.

Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

1.– Dirulaguntzen Erregimena Arazten duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege hori garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) dirulaguntza arloko oinarrizko legeriari dagokion guztian.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO) eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskaeran oinarrituta, eskatzen den laguntzaren espedientea kudeatzea da, eta datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko SPRIk duen interes publikoa da.

Informazio hori gaian eskumena duen Administrazio Publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Datuak laguntza emateko espedienteak izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira, legeko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo soilik tratamendu automatizatuan oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, idatzizko komunikazio baten bidez, helbide elektroniko honetara idatzita: lop@spri.eus. Interesdunak, era berean, datuak babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatziz, helbide elektroniko honetara idatzita: d@spri.eus

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Autoritatea izango da: www.avpd.euskadi.eus

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehakatuaren berri izateko, jo <https://agenda.spri.eus/es/aviso-legal/> web-orrialdeko pribatutasun-politikara

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.

I. ERANSKINA

«BASQUE GLOBAL INDUSTRY» BEKA PROGRAMAREN OINARRIAK

I.– Helburua.

2026ko «Basque Global Industry» beka-programaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen nazioz gairik mugikortasuna sustatzea, haien profil akademikoarekin eta profesionalekin lotutako jarduerak eta proiektuak atzerrian egin ditzaten, alde aurretik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan batekin.

Horretarako, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, Basque Trade & Investment agentziarekin (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) lankidetzan, laguntza ekonomikoak ematen dizkie programa hori kudeatzeko hautatutako erakundeei, I. eranskin honen eta programaren oinarrien arabera.

II.– «Basque Global Industry» beken edukia.

1.– Programaren erakunde onuradunek ematen dituzten bekek hauek bilduko dituzte:

a) Prestakuntza-ikastaro bat, bekadun guztientzat nahitaezkoa, 40 ordutik 60 ordura bitartekoa (deialdi honen oinarrietan zehaztuko da ikastaroaren gutxieneko edukia). Ikastaroa beken erakunde arduradunak emango du, hots, laguntza-programaren onuradunak, eta praktikak hasi aurretik egin beharko da.

b) Atzerrian gutxienez 6 hilabeteko eta gehienez 12 hilabeteko praktika egonaldia egitea enpresa edo erakunde laguntzaile batean. Praktikak irauten duen bitartean, bekadunek aurrez aurreko nahitaezko modalitatean beteko dituzte beren eginkizunak, eta enpresako langileek lagunduta egon beharko dute une oro.

2.– Bekadun izaera eskuratzeko, dagokion erakunde arduradunak beka eman izanaren agiria egin beharko du.

III.– «Basque Global Industry» beken onurak eta mugak.

1.– Guztira 350 beka eskainiko dira.

2.– Programaren esparruko bekadunek onura hauek lortuko dituzte:

a) Doako prestakuntza-ikastaro bat, 40 eta 60 ordu artekoa, praktikak hasi aurretik. Beken ardura duen erakundeak antolatu eta ordainduko du, eta bekadunak nahitaez parte hartu beharko du; bestela, emandako beka galduko du.

b) Hilean 1.785 euroko zuzkidura ekonomiko gordina, helmugako herrialdera joateko, mantenu-rako, ostaturako eta, behar izanez gero, bisei, baimenei eta txertoei dagozkien gastuak estaltzeko. Zuzkidura gordin horretatik eta dagozkion ordainketetatik, hala badagokio, dagozkion atxikipenak kenduko dira, PFEZari eta Gizarte Segurantzari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.

c) Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako arriskuen estaldurak eta Bidaiako Laguntzako azken horren osagarria. Erantzukizun Zibileko Polizak aseguruak bekaren garapenean hirugarrenei eragindako kalteen ondorio ekonomikoak estali beharko ditu.

Istripu-polizak honako estaldura hauek bermatuko ditu: heriotza, ezintasun iraunkor absolutua, osoa eta partziala baremoaren arabera, eta bidaiak-laguntzako polizak aseguruak helmugako herrialdean izan duen istripua eta/edo gaixotasuna (pandemiak barne) bermatuko du.

Poliza horien eremu geografikoa mundu osora zabaltzeko da.

3.– Beka emateak eta baliatzeak ez du inolako kontratu- edo estatutu-harremanik sortuko bekadunaren eta beken erakunde arduradunaren artean: Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa edo praktikak egiten diren enpresa edo erakundeak.

IV.– «Basque Global Industry» bekak eskuratzeko baldintzak.

1.– «Basque Global Industry» bekak eskuratu nahi dituzten pertsonak baldintza hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte:

- a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea.
- b) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eskabideak aurkezteko epea ireki aurreko 12 hilabetetik gorako antzinatasunarekin, edo aurreko 10 urteetan 5 urte jarraituko antzinatasunarekin.
- c) Graduak unibertsitate-titulu ofiziala edo Goi Mailako Lanbide Heziketako titulu ofiziala. Atzerrian lortutako tituluak onartuko dira, baldin eta agintaritza eskudunak emandako homologazioarekin edo baliokidetasunarekin batera badatoz.
- d) Praktikak egingo diren enpresak edo erakundeak eskatutako profilerak egokitzea.
- e) 2026ko urtarrilaren 1ean 30 urte beteta ez izatea.
- f) Praktikaren destinoa edozein dela ere, ingelesa menderatzen dutela egiaztatu beharko dute, eta gutxienez B2 maila eskatuko zaie graduak unibertsitate-titulazio ofizialak dituztenei, eta B1 maila Goi Mailako Lanbide Heziketako titulazio ofizialekoiei.
- g) Beka onartzeko unean beka normaltasunez garatzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea, edo eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen patologiarik ez izatea.
- h) Antzeko prestakuntza-helburua duten unibertsitateko tituludunentzako laguntza edo beka hauen edo beste batzuen onuradun ez izatea, baldin eta haien ibilbidean aukera eman badute atzerrian praktikak egiteko, 6 hilabetez edo gehiagoz nazioarteko enpresa edo erakundeetan. Zehazki, beka hauek baliatzeko, bateraezina da Basque Global Industry beken, BEINT beken, ICExen edo beste administrazio autonomiko batzuen beken, merkataritza-ganberen, EBko merkataritza-sustapeneko erakundeen eta antzeko beste erakunde batzuen beken onuradun izatea.
- i) Basque Global Industry-ren praktika garatuko den enpresan edo erakundean lan egin ez izana edo praktikarik egin ez izana.
- j) Indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- k) Ezin izango dute parte hartu dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigorrituta dauden eskatzaileek, ez eta horretarako ezgaitzen dituen legeak debekuren baten eraginpean daudenek ere, sexu-diskriminazioagatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- l) Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean dauden pertsonak.

2.– Aurreko apartatuan jasotako baldintzak beken ardura duen erakundearen aurrean egiaztatuko dira, honela:

a) Jaiotza-data egiaztatzen duen dokumentazioa (NAN, jaiotza-agiria, edo hori modu frogagarrian egiaztatzen duen beste edozein).

b) Curriculum vitae.

c) Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela egiaztatzen duen dokumentazioa, artikulua honetan zehaztutakoarekin bat datorrena.

d) Unibertsitateko edo Goi Mailako Lanbide Heziketako titulazio ofiziala agiri hauen bidez egiaztatuko da:

– Titulua.

– Titulua eskatu izanaren ordezkagiria, titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiriarekin.

– Ikasketa-espedientean jasotako nota, dagokion titulazioko proba osoa gainditu duela eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu dituela adierazten duena.

Atzerrian lortutako tituluekin batera, agintaritza eskudunak emandako homologazioa edo balio-kidetasuna aurkeztu beharko da.

e) Hautagaien ingeles-maila ziurtatzeko egingo den ahozko eta idatzizko probaren emaitza. Bestela, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 16ko Aginduaren eranskinean jasotako tituluak eta ziurtagiriak aurkeztu ahal izango dira. Agindu horren bidez, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskina bigarren aldiz eguneratzen da (73/2012 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan atzerriko hizkuntzak irakasteko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezarri eta tituluak eta ziurtagiriak onartzen dituen).

Eskabideak aurkezteko epea ireki aurreko 4 urteetan lortutako tituluak eta ziurtagiriak baino ez dira onartuko.

f) Erantzukizunpeko adierazpena:

– Beka eskatzen den unean eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen gaixotasunik ez izatea edo beka behar bezala garatzea eragozten duen muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

– Antzeko beken onuradun ez izatea, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.

– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekin lotutako ordainketak egunean izatea.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

3.– Izangaia praktikak egingo diren enpresak edo erakundeak eskatutako profileria egokitzen dela egiaztatzeko, hautaketa-epaimahaiarekin elkarriketa egingo da, eta hark baloratuko du.

V.– «Basque Global Industry» beketarako hautagaiak hautatzeko prozesua.

1.– Beka-eskaera aurkezteak oinarri hauetan xedatutakoa onartzea dakar.

2.– Beketarako hautagai bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du programari atxikitako erakunde onuradun baten aurrean.

Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) programaren erakunde laguntzaileak baldintza hori betetzen dela zainduko du, eta bi erakunderen edo gehiagoren aurrean eskaerak aurkezten dituzten hautagaitzak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

3.– Beken ardura duen erakunde bakoitzak egingo du hautaketa, ondoren deskribatzen den prozesuan oinarrituta:

a) Dagokion beka-programaren deialdi publikoa, bete nahi diren beken kopurua, beka bakoitzaren profila eta helmuga jasoko dituen, eta gutxienez hilabeteko epea izango duena, egiten den lehenengo iragarkitik zenbatzen hasita, eskabideak formalizatzeko eta aurreko IV. atalean zerrendatutako egiaztagiria aurkezteko.

b) Aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela egiaztatzea eta, bestela, interesdunei eskatzea gehienez ere hamar eguneko epean egin dezatela.

c) Curriculum vitae aztertzea eta titulazioa, prestakuntza osagarria eta esperientziak edo praktikak baloratzea, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-irizpide orokorren arabera.

d) Ingeleseko proba, IV.2.e) atalean eskatzen den titulazio ofiziala dutela egiaztatu ez duten izangaiatzat.

e) Banakako elkarrizketa Hautaketa Epaimahaiarekin, izangaiaren profila praktikak egingo diren atzerriko enpresa edo erakundeak eskatutakora egokitzen den baloratzeko.

f) Hautaketa-epaimahai bakoitza beken deialdia egin duen erakundeko bi kidek osatuko dute gutxienez. Programan lankidetzan parte hartzen duten erakundeen kasuan, beharrezkoa izango da elkarrizketa bakoitzean gutxienez bi lankidetzako erakunderen ordezkariak egotea. Horrez gain, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) SPRIren sozietate filialaren ordezkari bat ere egon ahal izango da bertan.

4.– Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, deialdia egin duen erakundeak beka emateko dagokion dokumentua emango du. Agiri horretan, honako hauek zehaztuko dira: zer herrialdetan eta zer enpresa edo erakundetan egingo diren praktikak, praktikak noiz eta zenbat iraungo duten, bekaren zenbatekoa, egin beharreko lanak eta praktika egonaldiaren funtzionamendu egokirako garrantzitsutzat jotzen diren gaiak.

5.– Beka emateko dokumentua hautatutako pertsonen jakinaraziko zaie. Beken ardura duen erakunde bakoitzak prozesuan parte hartu dutenen zerrenda orokorra argitaratuko du, hautatuak izan diren ala ez adieraziz.

6.– Esleitutako bekaren baldintzak aldatzea.

a) Bekadunei emandako beka herrialde bakoitzak eskatutako bisatuak edo baimenak lortzearen mende egongo da. Bekadunari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik bisatu edo baimen horiek lortzea ezinezkoa dela egiaztatzen bada, beka horren erakunde arduradunak beste helmuga batean praktika egitea eskaini ahal izango dio bekadunari.

b) Beka betetzeko baldintzak mehatxupean geratzen badira bekaren ardura duen erakundeari, enpresari edo erakundeari egotz dakioken arrazoiren batengatik, edo helmugako lekuan segurtasuna larriki aldatu edo mehatxatzeagatik, Basque Trade & Investment agentziak (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak (SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia) beken ardura duten erakundeei agindu ahal izango diete eragindako bekadunen helmuga behin betiko edo aldi baterako alda dezatela. Salbuespen gisa, bekadunari esleitutako helmuga berria Euskadin kokatu ahal izango da, eta zereginak telelanaren modalitatean garatzeko aukera ere egongo da.

c) Aurreko apartatuetan deskribatutako egoeretan dauden bekadunei helmuga berri bat esleitzea ezinezkoa dela eta zereginak telelanaren bidez egitea ezinezkoa dela egiaztatzen den

ezohiko kasuetan, beken ardura duten erakundeek, Basque Trade & Investment agentziarekin (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziarekin (SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia) adostuta, beka bertan behera utzi ahal izango dituzte amaitzeko ezarritako eguna baino lehen.

d) Ezinbesteko arrazoiak direla-eta bekadunak Euskadira aldi baterako edo behin betiko itzuli behar badira, aldez aurretik horren berri eman beharko zaio bekaren ardura duen erakundeari, behar bezala justifikatuz. Bekaren ardura duen erakundeak, halaber, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) erakundeari helaraziko dio egoerari buruzko balorazioa, eta hark, arrazoiak egiaztatu eta baliozkotu ondoren, berariazko oniritzia emango dio. Lanera itzuli arte, eta salbuespen gisa, beka betetzeko lanak telelanaren modalitatean egin ahal izango dira.

VI.– «Basque Global Industry» beka baten onuradunaren betebeharrak.

«Basque Global Industry» programako beka baten onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, beka eman zaiola jakinarazi eta 5 egun balduneko epean ez badu beka emateko dokumentua sinatzen, uko egin diola ulertuko da.

b) Helmugako herrialdean praktikak hasi aurreko prestakuntza-ikastarora joatea eta irakasleekin eta lankideekin jarrera kooperatiboa izatea une oro.

c) Erakunde, enpresa eta organismo laguntzaileek ezarritako osasun-neurriak errespetatzea beka irauten duen bitartean.

d) Helmugako herrialdeak eskatutako bisa, txertoak, baimenak edo baimenak lortzea bertara bidaiatu aurretik.

e) Helmugako enpresa eta erakunde laguntzaileen laneratzeko epeei eta helburuari buruzko jarraibideak onartzea eta betetzea, edo bekaren helburuak betetzera bideratutako beste edozein jarraibide. Praktikak irauten duen bitartean, bekadunaren ordutegia eta lan-egutegia enpresa edo erakunde laguntzailearenera egokituko dira, eta astean gehienez 40 ordu ezarriko dira.

f) Bekaren berezko jardueretarako dedikazio eskusiboa, ordaindutako beste jarduerarik egin gabe eta erakunde, enpresa eta erakunde laguntzaileen funtzionamendu-arauak betez beka irauten duen bitartean.

g) Praktikak egiten dituen enpresak edo erakundeak agintzen dizkion zereginak egitea, aldez aurretik ezarritako edo adostutako lan-planaren esparruan.

h) Hiru hilean behin praktiken garapenari buruzko txostenak egitea eta bidaltzea, bai eta bekaren ardura duen erakundeak eskatzen dion informazioa ere.

i) Helmugako herrialdera iristean kontsulatuan edo enbaxadan erregistratzea, beka-aldian bizilekua finkatze aldera.

j) Bekaren ardura duen erakundeak ezartzen dituen egindako lanaren ebaluazioetan parte hartzea. Ebaluazio horietan, Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) SPRIren sozietate filialaren ordezkari batek parte har dezake.

k) Bekadun izateari utziz gero, soberan jasotako zenbatekoak itzultzea. Itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, bekadun praktikaldirako aurreikusitako iraupen-epearen eta hura estaltzeko esleitutako zuzkidura ekonomikoaren arteko erlazio proportzionala zehaztuko da, eta jasotako zenbatekoa egindako egonaldiari dagokiona baino handiagoa bada, bekaren erakunde arduradunari itzuli beharko zaio jasotako soberakina.

l) Beken ardura duten erakundeek ezarritako jarraibideei jarraikiz, atzerriko herrialdeetara egindako bidaien berri ematea, bai praktikarekin zerikusia duten arrazoiengatik, bai arrazoi pertsonalengatik, aseguru-poliza eguneratzeko eta, horrela, estaldura bermatzeko. Basque Trade & Investment agentziak (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) eta/edo SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak herrialde edo eskualde jakin batean arriskugarritasuna dagoela egiaztatzen badute, bekadunen nazioarteko mugikortasuna mugatu ahal izango da.

m) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten eginkizunak betez, eskatzen dieten informazio guztia ematea.

n) Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 20/2023 Legearen 14. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.

o) Bekaren ardura duen erakundeari bekaren helburu ona lortzeari eragiten dion edozein gora-behera jakinaraztea.

p) Bekaren ardura duen erakundeari bere zereginak normaltasunez egitea eragozten dion edozein baja mediko edo bestelako egoera jakinaraztea.

VII.– Beken ardura duten erakundeek betebeharrak bekadunei dagokienez.

«Basque Global Industry» beka-programako beken erakunde arduradunak aurreko III. atalean adierazitako onurak erabat betetzeaz arduratuko dira, eta, ildo horretan, betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Bekadunari praktika egonaldiaren aurreko prestakuntza ematea.

b) Lankidetzat-hitzarmen espezifikak formalizatzea atzerrian praktikak egingo diren enpresa edo erakundeekin, bekadunak praktika garatzeko behar dituen baldintza materialak eta teknikoak ezartze aldera, hala nola praktika egiteko lekua, praktikaren iraupena, adostutako lan-plana eta funtsezkotzat jotzen diren gaiak.

c) Bekaduna gaixotasun- eta istripu-arriskuetatik, aberriratze-gastuetatik eta hirugarrenekiko erantzukizun zibiletik babesteko aseguru-poliza kontratatzea.

d) Bekaren diru-zuzkidura ordaintzea, ordainketa-erregimen honen arabera:

1.– Lehenengo ordainketa, praktikaldia hasi aurretik, emandako bekaren diru-zuzkiduraren % 50ekoa.

2.– Bigarren ordainketa, bekaren zuzkidura ekonomikoaren % 40koa, praktika egonaldiaren iraupenaren erdia betetzen den hilean.

3.– Hirugarren eta azken ordainketa, gainerako zenbatekoarena, praktika egonaldia amaitu ondoren, egonaldiaren azken balantzeari buruzko txosten bana jaso ondoren. Txosten horiek bekadunak eta haren enpresa edo erakunde hartzailleak aurkeztu behar dituzte.

4.– Bekadunek praktikak hasi aurretik nahitaezko prestakuntza ematea. Prestakuntzaren egunak eta orduak gutxienez egutegiko 15 egun lehenago jakinarazi beharko zaizkie bekadunei.

VIII.– Bekadun izateari uztea.

Bekadun izaera iraungi ahal izango da bekaren programa amaitzen denean edo bekaren erakunde arduradunaren onuradun izaera galtzen denean, honako arrazoi hauetakoren batengatik:

a) Bekadunak uko egitea.

- b) VI. artikuluan deskribatutako betebeharrak ez betetzea.
- c) Beka ezeztatzea, baldin eta V. artikuluko 6. paragrafoko c) idatz-zatian adierazitakoa betetzen bada.
- d) Erakunde, enpresa edo erakunde laguntzaileak praktikak aldezturik amaitutzat jotzea, bekadunari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik. Enpresa edo erakunde laguntzaileak praktikak aldezturik amaitutzat jotzen baditu bekadunari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, erakunde onuradunak hilabeteko epea izango du ordezkapen-enpresa edo -erakunde bat aurkitzen saiatzeko. Epe hori amaituta, beste aukerarik aurkitu ez bada, bekadun izateari utziko zaio.
- e) Justifikaziorik gabe, bi klase edo jarduera baino gehiagotan huts egitea helmugako herrialdean praktikak hasi aurreko nahitaezko prestakuntza-ikastaroan, edo antola daitezkeen bekadunak aitortzeko ekitaldira huts egitea, justifikaziorik gabe. Hutsegitetzat hartuko da ez joatea eta ikasgelara edo ekitaldira ezin sartzea puntualtasun-faltaren ondorioz.
- f) V. artikuluko 6. paragrafoari jarraiki egindako helmuga-aldaketei men ez egitea.
- g) VI I) artikularen arabera mugikortasunari ezarritako murrizketei men ez egitea.
- h) DEALen eta aplikatu beharreko gainerako araudian jasotako kasuren bat gertatzea.



II. ERANSKINA

BASQUE GLOBAL INDUSTRY BEKAK – 2026

AURKIBIDEA

●ESKAERA ORRIAK

I.– ESKAERA

II.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

III.– ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA

IV.– PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



I – ESKAERA

1. ESKATZAILEA:

Erakunde eskatzailea:
Legezko ordezkaria:
Kargua:
Izapidetze-arduraduna:
Kargua:
Harremanetarako telefonoa:
Harremanetarako e-maila:

2. GARAPEN PROIEKTUA

Deitu beharreko beken kopurua	
-------------------------------	--

Antzeko programen kudeaketan izandako esperientzia:

	Proiektuan sartutako jarduerak
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	

..... (e)n, 2026ko..... (a)ren..... (e)an

Sin.: Legezko ordezkaria*

* Erakunde desberdinek lankidetzak-modalitateko eskaera bateratua aurkezten badute, lankidetzako erakunde guztiek II. eranskin hau sinatu beharko dute.



II - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jauna/
andrea:
Erakunde honen izenean:

NAN:

IFZ:

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU BER ERANTZUKIZUNPEAN:

I.– Programa honen xede den laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela; zehazki, honakoak:

(i) Laguntza-eskabide honez gain, honako proiektu hauetarako eskabidea aurkeztu duela edo/eta laguntza lortu duela erakunde publiko edo pribatu hauetan, gaur arte:

Eskaera-data	Erakundea	Eskatutako kontzeptua	Egiteke/Onartuta/Ukatuta	Laguntzaren zenbatekoa (€)

Beste erakunde batzuei helburu bererako dirulaguntzak eskatu bazaizkie, laguntza horien eskabidearen kopia aurkeztu beharko da. Diru-laguntza horiek emanda badaude, horien ebazpenaren kopia.

Halaber, konpromisoa hartzen du ekitaldi honetan erakunde publiko edo pribatueta programa honi eskatutako proiektuetarako egiten dituen laguntza-eskaera guztien berri emateko.

(ii) Enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa hartzen duela, DEALen 49. artikuluan adierazitako baldintzetan.

(iii) Gainfinantzaketarik ez egiteko konpromisoa hartzen duela, DEALen 9.4h) artikuluan adierazitako baldintzetan.

(iv) Ez dagoela programaren oinarrietako 4.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean; hau da:

a) Nire erantzukizunpean adierazten dut betetzen ditudala DEALen 13. artikuluan laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak, hau da:

a.– Epai irmo baten bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearen zigorra jaso ez izana; edo prebrikazioarekin, funtzionario-eroskeriarekin, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearekin, influentzia-trafikoarekin, iruzurrekin eta legearen aurkako ordainarazpenekin lotutako delituengatik edo delitu urbanistikoengatik zigorra jaso ez izana.

b.– Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu ez izana, prozeduraren batean kaudimengabetzat jo ez izana, konkurtsoan deklaraturik ez egotea (hitzarmen bat eragingarri bihurtu denean izan ezik), esku-hartze judizial baten mende ez egotea edo 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak xedatutakoaren arabera ezgaituta ez egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako ezgaitze-aldia amaitu gabe egonda.



c.– Kausaren batean erruduntzat jotzeagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin ez izana.

d.– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona fisiko batzuen legezko ordezkariak direnak honako lege hauek jasotako kasuren batean sartuta ez egotea bateraezintasuneko erregimenari dagokionez: Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargudun Publikoen Interes Gatazkak eta Jokabide Kodea Arautzen dituen 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legea, edo Hauteskunde Erregimen Orokorreko 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutako hautetsia izatea, gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan edo lege horretan ezarritako baldintzen arabera.

e.– Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea, araudiak zehazten duen moduan.

f.– Zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea.

g.– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekin lotutako ordainketak egunean izatea, araudiak zehazten dituen baldintzetan.

h.– Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez egotea, lege honen edo beste batzuen arabera. Zehazki, ezin izango dira diru-laguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile izan dagokion zehapenean ezarritako aldiaren sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

i.– Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larriagatik administrazio bidean ebazpen irmo bidez zigortuta ez egotea, dagozkion neurri zuzentzaileak bete eta zehapena ordaindu arte.

j.– Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete izana, edo kuota hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu izana.

b) Laguntzak berreskuratzeko agindu baten mende egotea, Europako Batzordeak laguntza bat lege kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren.

c) Krisian dagoen enpresatzat hartzea, krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko jarraibideen arabera (2014/C 249/01 EBAO).

d) Sektore publikoren batekoa izatea edo sektore horretako kide izatea, aplikatzekoak diren sailkapen instituzionaleko arauen arabera.

e) Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea aurreikusitako arau-hauste larri eta oso larriengatik administrazio bidean ebazpen irmo baten bidez zehatua izatea, dagozkion neurri zuzentzaileak bete eta zehapena ordaindu arte.



f) LGTBIfobia egitea, bultzatzea edo sustatzea, bihurketa terapiak sustatzea edo egitea barne, otsailaren 28ko 4/2023 Legean, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legean, ezarritakoaren arabera.

(v) Ez dela armak ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen aritzen, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legean xedatutakoaren arabera.

(vi) Azpikontratatistak ez dira sektore publikoren bateko entzetat hartzen, aplikatzekoak diren sailkapen instituzionaleko arauen arabera.

(vii) Adierazpen honetan, programaren oinarrien 6.7 artikuluan adierazitakoa betetzeari dagokionez eskatzaileak dituen konpromisoak jasotzen direla, hala nola DEALen 49. artikulua arabera enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, DEALen 9.4.h) artikuluan xedatutako gainfinantzaketarik ez egitea, jasotako laguntzaren aurrerakina enpresaren kontabilitatean pasibo gisa islatzea eta, laguntza itzultzea erabakitzen duen ebazpenak hala xedatzen badu, SPRIri itzultzea.

II.– Indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen ditu.

Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkezten dudan dokumentazio guztia ere, eta neure gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

III.– Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari aurkezten ez bazaio, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua 4. apartatua ezarritakoaren arabera.

☐ Goian jasotako adierazpenen edukia onartzea.

..... (e)n, 2026ko.....ren..... (e)an

Sin.: Legezko ordezkaria*



III – ERAKUNDEAREN DESKRIBAPENA

1. DESKRIBAPENA:

Izen osoa:	
Izen laburtua:	IFZ:
Eratze-data:	
Helbidea:	
Posta-kodea:	Herria:
Lurralde historikoa:	
Telefona:	Faxa:
E-maila:	Web orria:

2. PROIEKTUA GARATZEKO KONPROMISOA HARTZEN DUTEN ERAKUNDEKO PERTSONAK (aukerako betetzea):

Presidentetza:		
Sexua:	Izendapenaren data:	
Gerentzia:		
Sexua:	Karguaren izena:	
Proiektuko gainerako pertsonak:		
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:
Izena:	Sexua:	Kargua:

3. PROIEKTUA GARATZEKO ERAKUNDEAK DITUEN BALIABIDE MATERIALAK:

.....

.....

.....

.....

.....



IV – PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

1. EGIN BEHARREKO EKINTZEN KRONOGRAMA:

Data	

2. PROIEKTUAN JASOTAKO EKINTZEN AURREKONTU OSOA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. EMAN BEHARREKO PRESTAKUNTZA PLANA:

Ordu kopurua	
Edukiak:	



V – PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

OSATU:

- III. ERANSKINA – ESKAINITAKO PRAKTIKA BAKOITZAREN XEHETASUNA.**
- IV. ERANSKINA – ESKAINITAKO PRAKTIKEN LABURPEN-TAULA.**



III. ERANSKINA

PARTE HARTZEKO ESKAERA: BASQUE GLOBAL INDUSTRY PROGRAMA – PRAKTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA*

* *Eredu hau osorik bete beharko da, emandako testua aldatu gabe. Ereduan edozein aldaketa eginez gero, ez da baliozkoa izango.*

PRAKTIKAREN ERREFERENTZIA: (Adierazi praktikak IV. Eranskinean duen kode edo zenbaki berdina fitxategiaren izenean)

INFORMAZIO KORPORATIBOA		
Enpresaren/erakundearen izena		
IFZ		
Harremanetarako pertsona		
Legezko ordezkaria		
Kokapena	Herrialdea	
	Hiria	
	Helbidea	
Sektorea		
Basque Global Industry 2026 programak egoitza horretarako eskaintzen duen guztizko praktika kopurua (Oinarrietan ezarritakoaren arabera, enpresa edo erakundeek gehienez ere 5 praktika eskain ditzakete egoitza bakoitzean)		

PRAKTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA		
Jasoko diren bekadunen kopurua		
Praktikarako behar den bisa edo baimen mota, indarrean dagoen legediaren arabera		
Saila (Bekadun 1 baino gehiago eskatuz gero, adierazi zer sailetan lan egingo lukeen pertsona bakoitzak)		
Proiektuaren/jardueren deskribapena (Bekadun 1 baino gehiago eskatuz gero, adierazi zer proiektutan/jardueratan lan egingo lukeen bakoitzak)		
Jardueren egutegia		
Praktikaren tutorea (Oinarrietan adierazitakoaren arabera, enpresek edo erakundeek gehienez ere 2 praktika eskain ditzakete tutore bakoitzeko)		



LANPOSTURAKO ESKATZEN DIREN KONPETENTZIAK	
Nahi diren profilei buruzko informazioa (Ikasketak, aurretiko esperientzia, hizkuntzak, beste trebetasun batzuk...)	
Iruzkinak	

BEKAREN LUZAPEN GEHIGARRIAREKIN LOTUTAKO AURREAKORDIOA

Basque Global Industry programako bekadunaren egonaldia luzatzeko konpromisoa hartzen du enpresak/erakundeak, eta luzapenaren iraupena honakoa izango da:

☐ __ hilabete

☐ Luzapenik gabe

enpresan/erakundean, hasierako 6 hilabeteko egonaldia normaltasunez eta behar bezala betetzen bada. Aparteko denbora-tarte horretan zehar, bekaren luzapenaz arduratzen den enpresaren/erakundearen kontura izango da aseguruaren kostua Hileko zenbateko ekonomikoa ez da 1.000 €-tik beherakoa izango.

HILEKO ZENBATEKOA, LUZAPENEAN ZEHAR:

☐ Bekaren zenbateko bera (1.785€)

☐ _____ € (ezin da 1.000€-tik beherakoa izan).

☐ Luzapenik gabe

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA:**

Enpresa edo erakunde eskatzaileak honako hau adierazten du:

- ☐ Dokumentu honetan emandako informazioa egiazkoa dela.
- ☐ Basque Global Industry 2026 programan ez dituela 5 praktika baino gehiago eskainiko egoitza honetarako, eta ez dituela 2 praktika baino gehiago eskainiko tutore bakoitzeko.
- ☐ Bekadunak eskatutako herrialdean egonaldia egin ahal izateko ezinbesteko baldintza gisa bisa edo beste baimenen bat behar badu, eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.
- ☐ Luzapenerako aurreakordioa sinatzen bada, luzapena egin izanaren egiaztagirak aurkeztuko dituela (praktika-kontratua edo antzekoren bat); eta bat-bateko arrazoiak direla eta eskainitako konpromisoa bete ezean, txosten bat prestatuko duela arrazoiak zehaztuz eta beharrezko justifikazioak aurkeztuz.

ENPRESA/ERAKUNDEA	SINADURA	DATA
Legezko ordezkaria		



IV. ERANSKINA

ESKAINITAKO PRAKTIKEN LABURPEN KOADROA

[illegible]